Urnietako udala

**Espte zk** nº expte:
**2024IUDA0003**

| OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE SESIÓN PLENARIA |
|---|---|
| **Bilera-mota:** ohikoa | **Tipo de sesión:** ordinaria |
| **Bilera-data:** 2024ko martxoaren 21a | **Fecha de la sesión:** 21 de marzo de 2024 |
| **Ordua:** 19:00etan | **Hora:** 19:00 horas |
| **Deialdia:**Lehenengoa | **Convocatoria:** Primera |
| **Tokia:** Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa | **Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento |
| **Interneteko sarbidea:** | **Acceso internet:** |
| YouTube kanala | Canal YouTube |
| **Akta onartu den bileraren data:** | **Fecha de la sesión de aprobación del acta:** |

| Bertaratutakoak: | Asistentes: |
|---|---|
| **Alkatea** | **Alcalde** |
| Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV) | Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV) |
| **Zinegotziak** | **Concejales** |
| Agurtzane Mercader Ubillos (EAJ-PNV) | Agurtzane Mercader Ubillos (EAJ-PNV) |
| Ana Pozas Rodríguez (EAJ-PNV) | Ana Pozas Rodríguez (EAJ-PNV) |
| Ainhoa Ostolaza Etxaniz (EAJ-PNV) | Ainhoa Ostolaza Etxaniz (EAJ-PNV) |
| Mikel Martiarena Barkaiztegi (EAJ-PNV) | Mikel Martiarena Barkaiztegi (EAJ-PNV) |
| Mikel Artola Pagola (EAJ-PNV) | Mikel Artola Pagola (EAJ-PNV) |
| Eukeni Garmendia Martínez (EH Bildu) | Eukeni Garmendia Martínez (EH Bildu) |
| María Angeles Lasarte Elicegui (EH Bildu) | María Angeles Lasarte Elicegui (EH Bildu) |
| Xabier Olaran Martín (EH Bildu) | Xabier Olaran Martín (EH Bildu) |
| Nagore Brel Gutiérrez (EH Bildu) | Nagore Brel Gutiérrez (EH Bildu) |
| Ramón Urdangarin Iriondo (EH Bildu) | Ramón Urdangarin Iriondo (EH Bildu) |
| Hermenegildo González Morán (PSE-EE) | Hermenegildo González Morán (PSE-EE) |
| Consuelo Frutos González (PSE-EE) | Consuelo Frutos González (PSE-EE) |
| **Idazkaria** | **Secretaria:** |
| Idoia Arévalo Benito | Idoia Arévalo Benito |
| Beharrezko quoruma gaindituta, eta Alkateak bilkurari hasiera emanda, gai-zerrendako puntuak aztertzeari ekin zaio. | Superado el quórum necesario y abierta la sesión por el Alcalde, se procede al análisis de los puntos del orden del día. |

| Gai-zerrenda: | Orden del día: |
|---|---|
| 1. 2024ko urtarrilaren 25eko eta otsailaren 29ko aktak onartzea. | 1. Aprobación de las actas del 25 de enero y 29 de febrero de 2024. |

ESKUa402c13d-54ab-4363-87aa-9485e74c8c93

| | |
|---|---|
| 2. Alkatetza eta zinegotzi ordezkarien ebazpenen berri ematea: 0097/2024-0256/2024. | 2. Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía y de las concejalías delegadas: 0097/2024 al 0256/2024. |
| 3. Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien kontu ematea: 2024ko otsailaren 16ko eta 29ko bilkurak. | 3. Dar cuenta de los acuerdos tomados en la Junta de Gobierno Local. Sesiones: 16 y 29 de febrero de 2024. |
| 4. Etxebizitzetarako hiri-lurzoruko eremu finkatu batzuetan dauden lokalen erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldetzeko jarduerak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa egin aurretik jendaurrean jartzeari buruzko ebazpenaren berri ematea. | 4. Dar cuenta de la resolución de someter a consulta pública previa a la elaboración de la modificación de la Ordenanza reguladora de las actuaciones tendentes a la modificación de uso, de terciario a residencial, en locales ubicados en determinados ámbitos consolidados.de suelo residencial. |
| 5. Kreditu gehigarri espedientea onartzea– 2024KKAL0002 | 5. Aprobar el expediente de créditos adicionales – 2024KKAL0002 |
| 6. AIU 32 "Babilonia" eremuko Urnieta-Lasarte bide berria urbanizatzeko proiektuaren lehen fasea onartzea (2024HORO0004) | 6. Aprobar la primera fase el proyecto de Urbanización del Nuevo Vial Urnieta-Lasarte del ámbito AIU 32 "Babilonia" (2024HORO0004) |
| 7. Galdera-eskariak. | 7. Ruegos y preguntas. |

| **Gai-zerrendako gaien azterketa:** | **Examen de los asuntos incluidos en el orden del día:** |
|---|---|
| **1.- 2024ko urtarrilaren 25eko eta otsailaren 29ko aktak onartzea.** | **1. Aprobación de las actas del 25 de enero y 29 de febrero de 2024.** |
| ****** | ****** |
| Aktak aho batez onartu dira. | Se aprueban las actas por unanimidad. |
| **2.- Alkatetza eta zinegotzi ordezkarien ebazpenen berri ematea: 0097/2024-0256/2024.** | **2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía y de las concejalías delegadas: 0097/2024 al 0256/2024.** |
| ****** | ****** |
| Berri eman da. | Se da cuenta. |
| **3.- Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien kontu ematea: 2024ko otsailaren 16ko eta 29ko bilkurak.** | **3.- Dar cuenta de los acuerdos tomados en la Junta de Gobierno Local. Sesiones: 16 y 29 de febrero de 2024.** |
| ****** | ****** |
| Berri eman dira. | Se da cuenta. |

ESKUa402c13d-54ab-4363-87aa-9485e74c8c93

**4.- Etxebizitzetarako hiri-lurzoruko eremu finkatu batzuetan dauden lokalen erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldetzeko jarduerak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa egin aurretik jendaurrean jartzeari buruzko ebazpenaren berri ematea.**

******

Berri eman da.

**5.- Kreditu gehigarri espedientea onartzea– 2024KKAL0002**

******

Dagozkien udal-zerbitzuen beharrei eta betebeharrei erantzuteko, honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin behar dira. Hala ere, ekitaldi honetako aurrekontuaren gauzatzea ikusita, gastu horiei aurre egiteko behar den kreditua nahikoa ez dela egiaztatu da. Horregatik guztiagatik, kreditua aldatzeko espedienteari hasiera eman behar zaio, proposamenean zehaztutako zenbatekoa duten kredituak sortzeko edo, hala badagokio, handitzeko, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

Ikusirik 2024KKAL0002 zenbakiarekin identifikatutako kreditu gehigarriaren modalitatean kredituak aldatzeko espedientea. Udal honetan indarrean dagoen aurrekontuari eragiten diona, 2.305.800 eurotakoa.

Ikusirik, 2024ko martxoaren 07a data duen bitarteko kontu-hartzailek igorritako txostenaren arabera, espediente horri aplikagarri zaion araudiari doitzen zaiola, zehazki, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluari eta hurrengoei, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuari buruzkoa eta Urteko Aurrekontu Gauzapenaren Udal arauari.

Ikusirik Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak 2024ko martxoaren 13an egindako aldeko irizpena, Udalbatzak, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen aldeko bozkarekin eta EH BILDU taldearen abstentzioarekin, gehiengo osoz, ondorengoa:

**ERABAKI DU**

1. Hasieran onestea kredituak aldatzeko espedientea, 2024KKAL0002 zenbakiarekin

**4.- Dar cuenta de la resolución de someter a consulta pública previa a la elaboración de la modificación de la Ordenanza reguladora de las actuaciones tendentes a la modificación de uso, de terciario a residencial, en locales ubicados en determinados ámbitos consolidados.de suelo residencial.**

******

Se da cuenta.

**5.- Aprobar el expediente de créditos adicionales – 2024KKAL0002**

******

Con objeto de atender las necesidades y obligaciones de los respectivos servicios municipales, se precisa la realización de los gastos relacionados en la propuesta que se adjunta. Sin embargo, a la vista de la ejecución del presupuesto de este ejercicio, se constata la insuficiencia del crédito necesario para hacer frente a dichos gastos. Por todo ello, procede iniciar expediente de modificación de crédito para crear, o en su caso incrementar créditos en la cuantía especificada en la propuesta, al amparo de los previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Visto el expediente de modificación de créditos, en la modalidad de crédito adicional identificado con el nº 2024KKAL0002 que afecta al Presupuesto vigente de este Ayuntamiento por importe de 2.305.600 euros.

Visto que según el informe emitido por la Interventora de fecha 07 de marzo de 2024 dicho expediente se ajusta a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecido por el art. 34 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria Anual.

Visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Organización del 13 de marzo de 2024, el Pleno con los votos a favor de los grupos EAJ-PNV y PSE-EE y con la abstención del grupo EH BILDU, por mayoría absoluta, el siguiente:

**ACUERDO**

1. Aprobar inicialmente el expediente de modificación de créditos, en la modalidad de

ESKUa402c13d-54ab-4363-87aa-9485e74c8c93

Urnietako udala

Espte zk nº expte:
**2024IUDA0003**

identifikatutako kreditu gehigarriaren modalitatean, udal honen 2024(e)ko aurrekontuari dagokiona.

crédito adicional identificado con el nº 2024KKAL0002 que se relaciona en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento correspondiente a 2024.

**Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena**
**Propuesta de realización de gastos y la correspondiente modificación de créditos**

| **Partida**<br>Partida | **Izena**<br>Denominación | **Kredituak**<br>Créditos | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **Egungoak**<br>Actuales | **Aldaketak**<br>Modificaciones | **Behin betikoak**<br>Definitivos |
| 1 0200.623.920.50.00 2024 | **SAREAREN BERRIKUNTZA**<br>REFORMA DE LA RED | 30.000,00 | 30.000,00 | 60.000,00 |
| 1 0300.609.153.30.01 2024 | **HIRI ALTZARIAK**<br>MOBILIARIO URBANO | 20.000,00 | 80.000,00 | 100.000,00 |
| 1 0300.601.920.00.00 2024 | **BABILONIKO URBANIZAZIOAREN BIDEA**<br>VIAL URBANIZACION BABILONIA | 0,00 | 1.370.000,00 | 1.370.000,00 |
| 1 0300.622.231.40.01 2024 | **ADINEKOEN APARTAMENTUAK LAGUNTZAREKIN**<br>APARTAMENTOS DE MAYORES CON APOYO | 5.000,00 | 690.000,00 | 695.000,00 |
| 1 0300.622.153.30.01 2024 | **PARKE ESTALIA**<br>PARQUE CUBIERTO | 0,00 | 40.000,00 | 40.000,00 |
| 1 0300.629.337.23.01 2024 | **GAZTEEN AISIA INSTALAZIOAK**<br>INSTALACIONES DE OCIO JUVENIL | 0,00 | 95.800,00 | 95.800,00 |
| | **GUZTIRA**<br>TOTAL | 55.000,00 | 2.305.800,00 | 2.360.800,00 |

**Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposamena**
**Propuesta de financiación de créditos adicionales**

ESKUa402c13d-54ab-4363-87aa-9485e74c8c93

Urnietako udala

**Espte zk** nº expte:
**2024IUDA0003**

| **Kod.(*)**<br>Cod.(*) | **Partida**<br>Partida | **Izena**<br>Denominación | **Zenbatekoa**<br>Cuantía |
|---|---|---|---|
| b | 2 0200.870.000.00.02 2024 | **DIRUZAINTZA GERAKINA FINATZAKETA LOTUA**<br>REMANENTE DE TESORERIA GASTOS AFECTADOS | 443.965,00 |
| c | 2 0210.600.000.00.01 2024 | **MIRAVALLES SALMENTA**<br>VENTA MIRAVALLES | 1.160.000,00 |
| a | 2 0110.870.000.00.01 2024 | **DIRUZAINTZA GERAKINA 2**<br>REMANENTE DE TESORERIA 2 | 701.835,00 |
| | | **FINANTZAKETA GUZTIRA**<br>TOTAL FINANCIACIÓN | 2.305.800,00 |

**a:** Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina
Remanente de tesorería para gastos generales
**b:** Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
Remanente de tesorería para gastos con financiación afectada
**c:** Sarrera berri edo handiagoak
Nuevos o mayores ingresos
**d:** Kredituen baliogabetze bajak
Bajas por anulación de créditos
**e:** Kreditu eragiketak
Operación de crédito

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34.3 artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da, honako arau hauen arabera:

a. Erakutsita dagoen lekua: Kontu-hartzailetzan.

b. Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: hamabost (15) lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

c. Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.

d. Inpugnatzeko arrazoiak: aipatu Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

e. Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean BERTAN, 7:30etatik 14:30etara edo telematikoki www.urnieta.eus helbidean. Halaber, Herri-administrazioen

2. En cumplimiento de lo dispuesto en el art 34.3 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se somete a información pública conforme a las siguientes reglas:

a. Lugar donde se encuentra: Intervención

b. Plazo para examinarlo y, en su caso, para presentar reclamaciones: quince (15) días hábiles contados a partir del siguiente también hábil del de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

c. Quiénes pueden interponer reclamaciones: los interesados que relaciona el art. 17.1 de la Norma Foral 21/2003, además de los miembros de la Corporación que hubieran votado en contra del acuerdo.

d. Motivos de impugnación: Los señalados en el art. 17.2 de la Norma Foral 21/2003 y la infracción del ordenamiento jurídico.

e. Oficina de presentación: En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento BERTAN, en horario de 7:30 a 14:30 o telemáticamente en www.urnieta.eus. Así

ESKUa402c13d-54ab-4363-87aa-9485e74c8c93

administrazio-prozedura ekidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke.

f. Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra

g. Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3. Erabaki hau Kontu-hartzailetza sailari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hermenegildo González:

*"Kreditu gehigarrien espediente horren barruan 1.370.000 euroko partida bat dago BABILONIA bidea URBANIZATZEKO. Otsailaren 29ko osoko bilkuran hitz eman genuen bezala.*

*2023ko ekitaldia itxi ondoren, eta udal-lursail batzuk besterenduta, Udala prest dago Babiloniako bide berriari ekonomikoki ekiteko.*

*Esan bezala, eman beharreko urrats batzuk daude, eta denbora daramate, baina horrek erakusten du konpromisoak betetzen ari garela.*

*Gai-zerrendako hurrengo puntuan beste urrats garrantzitsu bat emango dugu helburua lortzeko, kamioiak Zabaletatik pasatzeari utz diezaioten.*

*Horregatik guztiagatik, puntu honen aldeko botoa emango dugu, kreditu gehigarrien espedientea onartzea."*

Euken Garmendia:

- Batzordean esan bezala abstenituko gara, aldaketa asko daude eta horien

mismo podrán presentarse en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

f. Órgano ante el que se reclama: Ayuntamiento Pleno.

g. Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrá por aprobado definitivamente el mencionado expediente de modificación de crédito, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

3. Trasladar este acuerdo al área de Intervención a los efectos oportunos.

Hermenegildo González:

*"Dentro de este expediente de créditos adicionales hay una partida de 1.370.000 euros para la URBANIZACION del vial de BABILONIA. Tal y como nos comprometimos en el Pleno del día 29 de febrero.*

*Una vez cerrado el ejercicio 2023 y con la enajenación de unos terrenos municipales, el Ayuntamiento está en disposición de poder acometer económicamente el nuevo vial de Babilonia.*

*Como dijimos, hay unos pasos que dar, y que llevan su tiempo, pero esta es una muestra de que vamos cumpliendo con los compromisos.*

*En el siguiente punto del orden del día daremos otro paso importante para la consecución del objetivo, que dejen de pasar los camiones por Zabaleta.*

*Por todo ello, daremos nuestro voto a favor de este punto, aprobar el expediente de créditos adicionales."*

Euken Garmendia

- Tal y como dijimos en la Comisión, nos abstendremos. Hay muchos cambios y

ESKUa402c13d-54ab-4363-87aa-9485e74c8c93

artean nahiz eta Babiloniako urbanizazioaren alde egon, partida gehiago daude sartuta.

- Parke estaliaz hitz egiteagatik iruditzen zaigu bukatu gabe dagoela, nahiz eta bukatutzat eman.

aunque estemos a favor de la urbanización de Babilonia, hay más partidas incluidas.

- Por hablar del parque cubierto, nos parece que está sin finalizar, aunque se ha dado por terminado.

Agurtzane Mercader:

- Proiektu guztiak dira garrantzitsuak guretzat eta Hermek esan bezala hori da proiekturik garrantzitsuena.
- Aurreko aurrekontuen memorian aipatu genuen honekin hasiko ginela eta hau pausu bat da eta aurrerantzean pausu gehiago emango ditugu.

Agurtzane Mercader:

- Todos los proyectos son importantes para nosotros y, como dijo Herme, este es el proyecto más importante.
- Recogimos en la memoria de presupuestos que comenzaríamos con esto. Con esto hemos dado un paso y a partir de ahora daremos más pasos.

**6.- AIU 32 "Babilonia" eremuko Urnieta-Lasarte bide berria urbanizatzeko proiektuaren lehen fasea onartzea (2024HORO0004)**

******

CTE kontuan hartu dela eta baldintzak betetzen direla egiaztatuta eta lege- edo erregelamendu-mailako xedapen orokorrak, bai eta gainerako Aplikatu beharreko araudi teknikoa,

Errepideen Departamentuak (errepidearen jabeak), 2022ko maiatzaren 27an, aldeko txostena eman zuen, proiektuak txosten horretan adierazitako aldaketak jasotzeko baldintzapean. Betiere txostenean adierazitako aldaketak sartzen badira, eta Urnietako Udalak bere gain hartzen badu gerora eskualdatzea GI-3832 “Urnieta-Lasarte-Oria” errepidearen hasierako bide-tartearen titulartasuna, hasi GI-3722 errepideko 4,700 kilometro-puntuko egungo bidegurutzetik, eta urbanizazio proiektu hinetan Zabaleta kalean barreneko igarobide osoan aurreikusitako bidea eginez sortuko den bidegurutzeraino. Eskualdatzea une horretan dagoen egoeran egingo da, eta barne hartuko ditu haren elementu funtzional guztiak.

Ikusirik 2022ko abenduan UR Agentziak proiektuaren aldeko txostena eman zuela, eta gogora ekarri zuela obren sustatzaileak obrak egin aurretik eskatu eta lortu behar duela administrazio hidraulikoak ematen dituen obren nahitaezko

**6.- Aprobar la primera fase el proyecto de Urbanización del Nuevo Vial Urnieta-Lasarte del ámbito AIU 32 “Babilonia” (2024HORO0004)**

******

Habiendo verificado que se han tenido en cuenta el CTE, y que se reúnen los requisitos y las disposiciones generales de carácter legal o reglamentario, así como el resto de la normativa técnica que resulta de aplicación,

Visto que con fecha de registro 27 de mayo de 2022, el Departamento de Carreteras (propietario de la carretera) emitió informe favorable condicionado a que el proyecto incorporase las modificaciones apuntadas en dicho informe, *siempre y cuando el Ayuntamiendo de Urnieta asuma el futuro traspaso de la titularidad del tramo inicial de la “GI-3832 a Lasarte-Oria desde Urnieta”, desde* su actual inicio en la intersección del punto kilométroco 4,700 de la GI-3722 hasta la intersección que se generará con la construcción del vial previsto en este proyecto de urbanización del AIU 32 Babilonia, en todo su paso por Zabaleta. El traspaso se hará en el estado en que se encuentre en ese momento e incluirá todos sus elementos funcionales.

Visto que en diciembre de 2022 UR Agentzia informó el proyecto de forma favorable, recordando la necesidad de que el promotor de las obras solicite y obtenga de manera previa a las obras, la preceptiva autorización de las obras

ESKUa402c13d-54ab-4363-87aa-9485e74c8c93

baimena.

que concede la administración hidráulica.

AIU 32 "Babilonia" eremuan Urnieta-Lasarte Bide Berria Urbanizatzeko 1. Fasearen egikaritze-proiektua onetsi da, eta egokia eta nahikoa da onartzeko.

Se estima el proyecto de ejecución de la Fase 1 de Urbanización del Nuevo Vial Urnieta-Lasarte del ámbito AIU 32 "Babilonia". presentado es adecuado y suficiente para su aprobación.

Ikusirik 9/2017 Legearen, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 231. artikuluak xedatutakoa,

Visto lo dispuesto en el artículo 231 del Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público,

Ikusirik Udalbatzak duela kontratatzeko eskumena, baldin eta zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten %10 baino handiagoa bada,

Visto que la competencia para contratar corresponde a la Corporación cuando la cuantía supera el 10% de los recursos ordinarios del Presupuesto,

Ikusita "Babilonia" AIU 32 eremuko Urnieta-Lasarte Bide Berria urbanizatzeko proiektuaren lehenengo fasearen zenbatekoa 1.317.005,14 eurokoa dela, BEZa barne.

Visto que el importe de la primera fase el proyecto de Urbanización del Nuevo Vial Urnieta-Lasarte del ámbito AIU 32 "Babilonia". IVA incluido, asciende a 1.317.005,14 euros.

Ikusirik zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %10 gainditzen duela.

Visto que la cuantía supera el 10% de los ordinarios del Presupuesto.

Ikurisik Lurraldearen eta Jasangarritasun Energetikoaren Batzorde Informatzaileak 2024ko martxoaren 12an egindako aldeko irizpena, Udalbatzak aho batez ondorengoa:

Visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Territorio y Sostenibilidad Energética del 12 de marzo de 2024, el Pleno por unanimidad ha adoptado el siguiente:

**ERABAKI DU**

**ACUERDO**

Lehena.- AIU 32 "Babilonia" eremuko Urnieta-Lasarte bide berria urbanizatzeko proiektuaren lehen fasea onartzea.

Primero.- Aprobar la primera fase el proyecto de Urbanización del Nuevo Vial Urnieta-Lasarte del ámbito AIU 32 "Babilonia".

Hermenegildo González:

Hermenegildo González:

Kasu honetan, aurreko puntuan partida ekonomikoa onartu ondoren, orain Babilonia 32 HJE eremuko Urnieta-Lasarte bide berria urbanizatzeko proiektuaren lehen fasea onartu behar da.

En este caso, una vez aprobada en el punto anterior la partida económica, ahora toca aprobar la primera fase del proyecto de Urbanización del Nuevo Vial Urnieta- Lasarte del ámbito AIU 32 "Babilonia.

Hori ere otsailaren 29ko Osoko Bilkuran hartu genuen konpromisoa da, bide berria lortzeko beste urrats bat.

Esto también es un compromiso que adquirimos también en el Pleno del 29 de febrero, un paso más para la consecución del nuevo vial.

Beraz, gai-zerrendako puntu honen alde bozkatuko dugu.

Por lo que, votaremos a favor de este punto del orden del día".

Euken Garmendia:

Euken Garmendia

ESKUa402c13d-54ab-4363-87aa-9485e74c8c93

Urnietako udala

Espte zk nº expte:
**2024IUDA0003**

- Esan genuen bezala, berandu datorren bide bat da, nahiz eta ados egon.
- Aurreikuspen falta handia egon da eta badirudi iluntasun batzuk egon direla ere, gaur Aiurrin irakurri dudanaren arabera, gero hau egia izango den edo ez, ikusiko da.
- Bide honek Zabaleta auzoaren arazoa konpondu dezake baina ez kamioen arazoa, hauek landa-gunera bideratzen baitira.

- Como dijimos, es un camino que viene tarde, aunque estemos de acuerdo.
- Ha habido mucha falta de previsión y parece que ha habido algo de opacidad, según lo que he leído hoy en el Aiurri, si luego esto será cierto o no, se verá.
- Esta vía puede resolver el problema del barrio de Zabaleta pero no el de los camiones, que se dirigen al medio rural

Alkatea:

- Guztioi gustatuko litzaiguke bide hori aspaldi egina izatea, baina ez dagokio Udalari gauzatzea, eremuaren jabeei baizik.
- Argi daukagu auzoarentzat batez ere enbarazu ikaragarria dela, baina eremuak ez duenez bere gain hartu bide hori egiteko ardura, Udalak hartu du hura garatzeko ekimena, aldez aurreko jarduketak eginez, hala nola lurrak aldez aurretik okupatuz, diru kopuru handia bideratu du helburu horretarako eta onartzeko ekarri den urbanizazio-proiektua daukagu.
- Errepiderako betebeharra ez dagokio udalari, eremuaren jabeei baizik.

El Alcalde:

- A todos nos gustaría que este camino hubiera estado hecho hace mucho pero no le corresponde al Ayuntamiento su ejecución, sino a los propietarios del ámbito.
- Tenemos claro que para el barrio sobre todo es una molestia impresionante, pero como el ámbito no se ha hecho cargo de la ejecución de ese vial, es el Ayuntamiento el que ha tomado la iniciativa para desarrollarlo, realizando actuaciones previas como la ocupación anticipada de los terrenos, ha destinado una cantidad económica importante para ese fin y tenemos el proyecto de urbanización que se ha traído para su aprobación.
- Reiterar y dejar bien claro que la obligación de ejecutar esa carretera no es del Ayuntamiento sino de los propietarios del ámbito.

Euken Garmendia

- Promotoreei tokatuko zaie bide hori egitea, baina 2023ko aurrekontuetan 500.000 euro zuzendu zituen udalak bide hau egiteko. Zertarako zuzendu diru hau promotoreei tokatzen bazitzaien?
- Orain konpromisoa hartu da aurrekontuetan hori egiteko, ez zen

Euken Garmendia

- Será un camino que les tocará a los promotores, pero en los presupuestos de 2023 el ayuntamiento destinó 500.000 euros a esta vía. ¿Para qué destinar este dinero si les correspondía a los promotores?
- Ahora se adquiere el compromiso de hacerlo en los presupuestos, no se

ESKUa402c13d-54ab-4363-87aa-9485e74c8c93

aurrekontuetan partidarik zuzendu eta orain Miravallesetik datorren dirua erabiliko da hori egiteko.

- Ikusten dugu boluntade gauza bat dela beste ezer gehiago.

Agurtzane

- Borondatea ez da soilik udaletxearena, jabeena ere. Haiekin negoziaketak burutu behar izan dira adosteko nola bueltatuko den dirua udalera honek bidea egitean.

Alkatea

- Partida hori 500.00 eurokoa zen, eta ez zen nahikoa ezta bidearen erdia egiteko. Udalak 500.00 euro horiek hasieran jarri zituen, Udalak bide hori egin zezakela pentsatuz. Gero, ezinezkoa zela ikusi zen.

- Argi utzi behar da bidea eremuko jabeek egiteko obligazioa dutela, eta udala bere eskuetan dagoen guztia egiten ari bada bidearen egikaritzea aurreratzeko, Zabaleta auzoko bizilagunei eragiten ari zaizkien eragozpenak ezabatzeko baino ez da.

destinó partida presupuestaria y ahora se va a destinar dinero procedente de Miravalles.

- Vemos que más que nada es cuestión de voluntad.

Agurtzane

- La voluntad no es sólo del ayuntamiento, sino también de los propietarios. Se han tenido que negociar con ellos para acordar cómo se va a devolver el dinero al Ayuntamiento si éste procediera a ejecutar el camino.

El Alcalde

- Esa partida era de 500.00 euros, insuficiente para ejecutar ni la mitad del camino. El Ayuntamiento destinó esos 500.00 euros en un inicio por si el Ayuntamiento podía hacer esa carretera. luego se vio que no era posible.

- Dejar claro que el camino lo deben ejecutar los propietarios del ámbito y si el ayuntamiento está poniendo todo de su parte para adelantar la ejecución es únicamente con el fin de eliminar las molestias que se están causando a los vecinos del barrio de Zabaleta.

**7.-Galdera-eskariak.**

Zabaletako bizilagunek kamioekin dituzten arazoak azaltzen dizkiote Udalbatzari eta Alkateari horren inguruko zenbait kezka eta galdera egiten dizkiote.

Alkateak galdetutakoari erantzuten die.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, Alkateak bilkura bukatutzat eman du zazpiak eta erdietan. Horri buruzko akta hau egin da, eta nik, Urnietako Udaleko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

Jorge Segurado Iriondo, Alkatea / Alcalde.

**7.-Ruegos y preguntas.**

Los vecinos de Zabaleta trasladan al Pleno y al Alcalde algunas preocupaciones y preguntas al respecto.

El Alcalde responde a lo preguntado.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde da por finalizada la sesión a las siete y media horas , de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, Secretaria del Ayuntamiento Urnieta, doy fe.

Idoia Arévalo Benito, Idazkaria / Secretaria.